

## LIBURUTEGIKO IKASGELAK

### IKASTEKO GELEN IZAERA

- Ikasten ari direnentzat liburutegiko ordutegia nahiko murrizta gerta daitekeenez, Udalak ikasgela pare bat prestatu ditu Liburutegiaren egoitzan.
- Ikasgelak Liburutegian daude, baina ordutegiz kanpo erabiltzeko aukera eskaintzen du eraikinaren egiturak.
- Irabazi asmorik gabeko erabilerarako izango dira ikasgelak, ikasteko; ez dira erabiliko bilerak egiteko.
- Liburutegiko ordutegian liburutegitik bakarrik egingo dira sartu-irteerak. Ordutegi horretan ez da erreserbatu beharrik izango.
- Eskaera egin duenak erabiliko du bertako giltza, ez zaio beste inori lagako; beraz, liburutegiko ohiko ordutegitik kanpo ikasgeletan dauden denek izan beharko dute giltza.
- Bete beharrekoak:
  - o 16 urtetik gorakoa izatea
  - o Antzuolan erroldatuta egotea

### ESKAERA EGITEA:

- Eskaerak modu ofizialean egin beharko dira eta sarrera erregistroa izango dute.
- Eskaerak Udalari zuzenduko zaizkio bi modu hauetan:
  - o Presentzialki, harreran eskaera orria beteta.
  - o Modu telematikoan erregistroa erabilia. Horretarako Udalak bere webgunean herritarren eskura jarriko duen inprimakia erantsita.
- Eskaera orri horiek eta inprimakian eskatzen diren datu guztiak beteko dira giltza jaso ahal izateko.
- Giltza bakoitzak pertsona baten izen abizenak eta telefono zenbaki bat izango ditu.
- Datu hauek erregistro batean jasoko ditu Udalak.
- Eskaerak ezin dira talde moduan egin, giltza bakoitzak pertsona baten izen abizenak eta telefono zenbaki bat izango ditu eta bera izango da giltzaren arduraduna.
- Gela bakoitzean, gehienez, bi pertsona sartu ahal izango dira batera. Esan bezala, bakoitza bere giltzarekin.
- Eskaera, gehienez, hilabetekoa izan daiteke. Baimena luzatu nahi bada, berriro egin behar da eskaera.
- Eskaera egiterakoan, gela zein egun eta zein ordutegitan erabili nahi den adieraziko da.
- Ikasgela, gehienez, gauerdira arte erabili ahal izango da.

### GILTZA ESLEITZEA:

- Behin eskaera jasota Liburutegiko teknikariak oniritzia eman beharko du
- Teknikariak berak, zehaztuko ditu egutegia eta ordutegia.
- Teknikariak berak emango du giltza.

### ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK:

#### UDALARENAK:

- Udalak betebeharra du, ikasturteetarako eskatzen diren giltzen eskaerei garaiz erantzuteko, beti ere, eskaerak ezarritako epeen barruan egin badira.

- Eraikinaren erabileran arazorik egongo balitz, Udalak eskubidea du sarreraren erregistroa zein kamera-irudiak begiratu eta indarrean dauden zigor-neurriak hartzeko, eta giltzaren arduraduna arazoaren erantzule egiteko.
- Udalaren obligazioa da gelak goizero (astelehenetik ostiralera), txukun egongo direla ziurtatzea.

#### ERABILTZAILEARENAK:

- Behin giltza jasota, erabakitzen den ordura arte, erabiltzaileak eskubidea du gela erabiltzeko, berogailuarekin eta argi-indarrarekin.
- Sartzerakoan gelak txukun egon behar dute; ez badaude, argazkia atera eta Udalari jakinarazi. Irteterakoan ere, gelak hutsik eta txukun egon behar dute.
- Erabiltzaileak, kanpoko atea eta gelakoa itxita edukiko ditu.
- Irteterakoan erabiltzaileak atea itxita eta argiak itzalita lagako ditu.

#### ZIGORRAK

- Giltza galdu bada:
  - Eta segituan berri ematen bazaio Udalari, giltza indargabetu egingo da, eta galdu duenari ordainarazi egingo zaio.
  - Eta Udalari ez bazaio berri ematen, giltza ordainarazteaz gain, 100 euroko isuna jarriko zaio, eta urte betean ikasteko gelak erabiltzeko baimena kendu.
- Giltzaren erabilera okerra egiten bada:
  - Txanda hartu eta gela erabiltzen ez bada, ulertzen da erabil zezakeen beste norbait kaltetzen dela; hortaz:
    - Behin gertatzen bada, ohartarazpena.
    - Bi aldiz gertatzen bada, giltza itzultzea eta ondorengo hilabetearen erabiltzeko aukerarik ez.
    - Hiru aldiz gertatzen bada, giltza itzultzea, ondorengo bi hilabetearen erabiltzeko aukerarik ez, eta 100 euroko isuna.
  - Taldean sartuta. Giltza kendu egingo zaio, 50 euroko isuna jarri, eta urte betean ikasteko gelak erabiltzeko baimena kendu. Taldeko gainerakoei ere, 50 euroko isuna jarriko zaie.
  - Gelan edo eraikinean kalteak eraginda.
    - Nahita izan bada, (kameretako irudiak begiratu) kalteak ordainarazteaz gain, 200 euroko isuna jarriko zaio, eta urte betean ikasteko gelak erabiltzeko aukera kendu.
    - Nahi barik izan bada, irudiak begiratu eta horren arabera erabakiko da.

#### GILTZA EMATEA

Giltza ematearekin batera, eskatzaileek erabiliko diren lokalen araudia eta bertan jasotzen direnak ezagutzen dituen agiria sinatuko du.